

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 275/2023 Erabakia, maiatzaren 23koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko deialdia, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2024ko programaren barruan

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenak eta Arabako toki erakundeek obra txikiak egiteko laguntza programak arautzen ditu.

Foru arau horren II. tituluaren auzo harremanak sustatzeko ekimenen programari buruzko xedapenak ezarri, eta halako laguntzak emateko arauak eta irizpideak finkatzen dira.

Landa gizartearen auzo harremanak eta talde sentimendua sustatu nahi ditu programa horrek, obrak auzolanen sistema tradizionalaren bidez eginez.

Horretarako, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua aplikatuz, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2024ko programaren barruan Arabako toki erakundeentzako laguntzak arautuko dituen deialdia onetsi behar da.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Horrez gain, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontuan hartu da euskararen erabileraren faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko deialdia, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2024ko programaren barruan.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 2024ko ekitaldirako indarrean dagoen "10203. G/459100/76800102 Auzo harremanak sustatzeko ekimenak" izeneko aurrekontu partidari 622.712,00 euro esleitzea, deialdi honen ondoriozko ordainketei aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean.

Hirugarrena. Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzak emateko deialdia arautu dadila, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2024ko programaren barruan.

1. Arauketa.

Programa 2013ko ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren II. tituluaren ezarritakoaren arabera arautzen da (Arabako toki erakundeetan auzo harremanak sustatzeko eta obra txikiak egiteko ekimenetarako laguntza programak arautzen ditu arau horrek; aurrerantzean, 21/2013 Foru Araua).

2. Erakunde onuradunak.

21/2013 Foru Arauaren 5. artikuluan jasotako erakundeek eska dezakete laguntza programa honetan parte hartzea.

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau hausteengatik zehapena jaso duten erakundeak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan jasotako kasuetan sartzen direnak ere.

3. Diru hornidura.

Hasierako finantza hornidura Arabako Foru Aldundiaren 2024ko aurrekontuko partiden hasierako esleipenen batura da; hain zuzen ere, berariaz edo modu osagarrian auzo harremanak sustatzeko ekitaldiak finantzatzera bideratutakoenen batura. Zenbateko horiek hasierako horniduraren ehuneko 50eraino handitu ahal izango dira.

Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditu erabilgarria egotea.

4. Eskaerak aurkezteko epea, lekua eta modua.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko uztailaren 17ko 23:59an amaituko.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen, toki erakunde bakoitzak erabakia hartu beharko du, bere antolaketa eta funtzionamendu araubidearen arabera, eskatzen dituen obra eta zerbitzuei buruz.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkeztu behar dira nahitaez: <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>. Nahitaez erabili beharko da 2024an auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako laguntzak eskatzeko berariazko inprimaki elektronikoa, eta eskaera helbide elektronikoa honen bidez egin beharko da:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/solicitar-ayudas-relaciones-vecinales>.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek telematikoki aurkeztera behartuta daude, egoitza elektronikoa berariazko izapidearen bidez: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Erregistro elektronikoa bakar batean aurkeztu daitekeen gehieneko luzera gainditzen duen dokumentazio osagarria aurkeztu behar bada, beste aurkezpen bat egin ahal izango da. Aurkezpen horretan, gutxienez, zer erregistro zenbaki edo kode individualizaturen osagarria den aipatu beharko da, edo hura identifikatzeko informazio nahikoa.

5. Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaerari honako agiri hauek erantsi behar zaizkio:

Egingo diren obren aurrekontua, nahikoa banakatuta eta BEZa bereiz adierazita.

Jarduketa zoladura jartzeko baldin bada edo jarduketaren barruan zoladura jartzea sartzen bada, aurkeztutako aurrekontua behar bezain zehatza izan beharko da, zenbat metro koadro zolatuko diren eta zer material erabiliko den jakiteko.

21/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 2. apartatuak aipatzen duen hormigoizko modulua honako hau izango da 2024ko deialdian: 37,43 euro/m².

“Hirigintza proiektuaren premiaren ziurtagiria/hirigintza txostena” inprimakia, behar bezala beteta eta hirigintza arloko udal teknikari aholkulariak sinatuta.

Inprimakian adierazten bada proiektu teknikoa behar dela, obren aurrekontuaren edo balorazioaren orde, obrak gauzatzeko proiektu teknikoa aurkeztu beharko da, eta eraikuntzaren kode teknikoa onesten duen martxoaren 17ko 316/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako

eraikuntzaren kode teknikoaren 1. eranskinean ezarritako dokumentuak eta edukiak jaso beharko ditu. Proiektuak eskatutako obrari dagokion jarduketa soilik jaso beharko du. Proiektua ez da aurkeztuzat joko, baldin eta diruz laguntzeko aurkeztutako jarduketa beste jarduketa handiago baten zati bat bada eta proiektua jarduketa handiago horri buruzkoa bada.

Inprimakian adierazten bada sektore eraginak izango direla, eskaerarekin batera, eskatutako obra baimentzeko, baimena emateko edo aldeko txostena emateko erakunde eskudunari toki erakundeak egindako eskaeraren kopia erantsi beharko da.

Inprimakian adierazten bada esku hartzea egin nahi den ondasuna babes bereziko edo ertaineko monumentu edo monumentu multzo bat dela, eskaerarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak egindako aldeko txostena aurkeztu beharko da. Inprimakian adierazten bada esku hartzea egin nahi den ondasunak oinarrizko babes duela, nahikoa izango da hirigintza arloko udal teknikari aholkulariaren aldeko txostena, edo, horren ordez, udalaren obra lizentzia.

Inprimakian ustezko zona arkeologikoan esku hartu nahi dela adierazten bada, eskaerarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuari aurkeztutako txosten eskaeraren kopia aurkeztu beharko da.

Eskatutako jarduketa "Hornidura edota saneamendu sareetan antzemandako gabezien ondoriozko konponketa partziala" epigrafearen barruan sartzen bada, eskabidearekin batera honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

Antzemandako gabeziei buruzko agiriak (konponketen fakturak...).

Horren ordez, txosten teknikoa aurkeztu ahalko da, non azaldu beharko baitira antzemandako akatsak, haien izaera, garrantzia, antzintasuna eta eskaera aztertzeke interesgarri izan daitekeen beste edozer.

Eskatutako jarduketa bideetan obrak egiteko bada, eskaerarekin batera dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da, eta ahalik eta xehetasun handienaz adierazi beharko da zein tartetan jardutea eskatu nahi den.

Aurkeztutako eskabideak osatu gabe badaude edo oinarri hauetan eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzen dezala edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzala horretarako ezarritako epean, eta jakinaraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, organo eskudunak horretarako ebazpena eman ondoren.

Aurreko oinarrian aurreikusitako ondorioetarako, osatu gabeko eskabideak ez aurkeztuzat joko dira, harik eta eskabidea erabat zuzendu arte.

21/2013 Foru Arauaren 8. artikuluan 5. apartatuan ezarritakoaren arabera, ezingo da laguntzarik eskatu Lurralde Oreka Sailak kudeatzen dituen beste laguntza programa batzuen 2024ko deialdian eskatu diren obretarako, eta, batez ere, obra eta zerbitzuen foru planaren 2024-2025 deialdian eskatu diren obretarako.

6. Obren tipologia.

Dirulaguntzak jaso ditzakete 21/2013 Foru Arauaren 6. artikuluan jasota dauden jarduketa motek.

6. artikulua horrek aipatzen dituen jarduketak gauzatzeko erakunde eskudunen baimena edota aldeko txostena behar bada, jarduketari ekin baino lehen eduki beharko da.

Eskatutako jarduketa bideetan egin beharrekoa bada, mantentze edo garbiketarako jarduketak hartuko dira aintzat, eta salbuespen gisa hormigoizko zoladurak, inguruabar fisikoek hala aholkatzen badute (adibidez, malda nabarmenetan), aurkeztutako dokumentazio teknikoan horrela definitzen badira eta, Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan sartutako bideen kasuan, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak berriaz aholkatzen badu hurrengo paragrafoan aipatzen den txostenean.

Nolanahi ere, eskatutako jarduketa obrak Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan sartutako bideetan egiteko baldin bada, Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak aurrekontua edo txosten teknikoa egingo du prozeduraren instrukzio txostena eman aurretik.

Legez definitutako eremu arkeologikoetan jardunez gero (kategoria edozein dela ere), nahitaezkoa da Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena edukitzea.

21/2013 Foru Arauaren 8. artikularen 6. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, laguntza eskatzen duen toki erakundea ondasunen eta eskubideen titulartzat hartuko da, soilik baldin eta ondasun edo eskubide horiek haren izenean badaude inskribatuta jabetza erregistroan edo, bestela, toki erakundearen ondasunen inbentarioan haren jabetzakoak direla jasota badago.

7. Esleipen araubidea eta hautaketa irizpideak.

Dirulaguntzak esleitzeko araubidea eta aplikatzekoak diren hautaketa irizpideak 21/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan daude jasota.

Laguntzen deialdia ebatzi ahal izateko dirulaguntzaren hasierako kalkulua egiteko, aurkezteko epean aurkeztutako aurrekontu ekonomikoa hartuko da kontuan, eta zuzendu egin beharko da, baldin eta alderik edo akatsik antzeman bada. Zuzenketa egin ondoren, emaitza ondorio guztietarako aplikatuko da.

8. Prozeduraren ebazpena eta jakinarazpena.

Prozeduraren ebazpena eta jakinarazpena 21/2013 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

Indarrean dagoen legeriaren arabera jakinaraziko zaie toki erakundeei eskatutako obrak programan sartzeari edo ez sartzeari buruzko ebazpena. Ebazpen horrek administrazio bidea amaitzen du.

Laguntzak emateko ebazpenaren jakinarazpenean ezarritako baldintzak eta betekizunak bete beharko ditu toki erakunde onuradunak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean ezarritakoaren araberrako kontratu txikia bada, kontratazioa egin aurretik gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko zaizkie hornitzaile desberdinei, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago eskaintza horiek egiteko behar adina hornitzaile; hori hala bada, erakunde eskatzaileak behar bezala justifikatu beharko du sinatutako dokumentu batean.

Bat etorri Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak ezarritakoarekin, obren adjudikaziodunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, organo eskudunak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

9. Gauzatzeko eta agiriak aurkezteko epea.

Deialdi honen bidez diruz lagundutako lanak egiteko jarri den muga eguna 2024ko azaroaren 30a da. Epe horretarako aurkeztu beharko da, halaber, dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko justifikatzeko dokumentazioa.

Salbuespen gisa, eta horretarako ahalmena duen Lurralde Orekaren Saileko titularrak berriaz onetsi beharko duen justifikazioa aurkeztu ondoren, 2024ko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango da obra amaitzeko eta obra egin dela justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea. Epe hori ezingo da inolaz ere egun hori baino geroagora luzatu.

Ordainketa egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko epea 2 hilabetekoa izango da, dirulaguntza ordaintzen den egunetik aurrera.

Diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

10. Dirulaguntzen aldiberekotasuna.

Auzo harremanak sustatzeko ekimenak laguntzeko programaren kontura diruz lagundutako jarduketa bat finantzatzeko dirulaguntza bat baino gehiago jasoz gero, 21/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan horri buruz xedatutakoari jarraituko zaio.

11. Dirulaguntzak errebokatzea eta itzultzea.

Dirulaguntza emateko eta benetan jasotzeko ezarritako baldintza guztiak funtsezkoak dira, eta, beraz, baldintza horiek betetzen ez badira, dirulaguntza erabat errebokatuko da, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira eta, hala badagokio, dirulaguntzak arautzen dituen foru araudian jasotako erantzukizunak izango dira.

Laugarrena. Lurralde Orekaren Saileko diputatuari ahalmena ematea aintzat hartutako obrak izapidetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan, bai eta dagozkion aurrekontu partidetan dirua erabilgarri egoteagatik geroago egin daitezkeen esleipenak onar ditzan ere. Geroago esleipenik eginez gero, kide anitzeko organoak prozedura ebazteko eta, orobat, prozedura errebokatze edo itzultzeko eskaerak egiteko egindako proposamenaren lehentasun ordena errespetatu beharko da.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritz Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA